



Bi eskualdeetako 131 eragilek dute jada Bai Euskarari ziurtagiria

AITORTZA ▶ Egindako lanagatik Ziurtagiria duten
1.190 eragileak omendu ditu Kontseiluak Donostian ▶ 2



Eragileetako batzuk, herenegungo ekitaldian. ASIER ERRASTI / IRUTXULOKO HITZA



Mr Hurrican Band taldearen blues doinuak, Fronton kafetegian

TOLOSA ▶ Inauteriek utzitako ajeari aurre egiteko bi kultur ekitaldi antolatu dituzte gaur. Lehenik, 20:00etan, Molestias klonicas taldearen *Parodia clown* lana izango da ikusgai, 20:00etan, Kultur Etxean. Eta 23:30ean, Mr Hurrican Band laukoteak (argazkian) blues kontzertua eskainiko du, Fronton kafetegian. HITZA ▶ 3

ALEGIA ▶

I. Bertso Paper Lehiaketa, prest

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak antolatu du; oinarriak finkatu dituzte ▶ 5

Asgarth

Bideoklip berriaren aurkezpena
"zeren beldur"

Aurkezpenarekin batera taldearen kontzertu akustikoa izango da, diskoen sinadura, CD eta kamiseten zozketa... Zatoz elkar-era!

Martxoaren 3an

Fermin Calbeton, 21
(Donostia)
18:00tan



www.ekar.com

ekar

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA ▶

Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileek eginiko lana aitortu du Kontseiluak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko 131 eragileek dute dagoeneko Ziurtagiria; guztira 1.190 eragile omendu zituzten herenegun Kursaalean eginiko urteko ekitaldian



Herenegun burutu zuen Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei omenaldia, Kursaalean; guztira, 1.190 eragileek dute. HITZA

I. TERRADILLOS - N. LATABURU

Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileek egindako lana eskertu zuen, herenegun, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Kursaalean eginiko urteko ekitaldi nagusian. Guztira, 1.190 eragileek dute dagoeneko ziurtagiria, eta horietatik 131 dira Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ere Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz Ziurtagiria du. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak ziurtagiria lortu dutenen «ahalegina» azpimarratu zuen agerraldian, «hori baita euskarak behar duen bultzada».

Ekitaldian Nestor Basterretxearen *Iparralde-Hegoalde* izeneko artelanaren lamina bana banatu zieten ziurtagiria duten guztiei; lan horrekin, Iparraldean zein Hegoaldean «euskararen presentzia areagotzeko lan asko egin behar» dela adierazi zuen artistak.

Bestalde, ekitaldian bertan Bai Euskarari Ziurtagiriaren publizitate kanpaina berria aurkeztu zuten atzotik hasita Euskal Herriko 50 komunikabideetan zabalduko dena. *Aintzat hartu* leloa duen kanpainak euskararen normalkuntzan emandako aurrerapausoa aitortzea du helburu.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO 131 ERAGILEAK ▶

Guztira, 131 eragileek dute Ziurtagiria Tolosaldean eta Leitzaldean:

BIDEAN

Aduna. Hol-Atz egur tratamendua, Zumeta bizitegia.

Anoeta. Bat garajea, Rali neumatikoak.

Areso. Larrea elkartzek, Leiza mandriladora, M. E. Latz S.L.,

Usoa ehiztarien elkarteak.

Ibarra. Ganbara (Enseñanza y Venta de Labores), Graficas Ibarra inprimategia, Gurutze karrozeria, Zubiaurre taberna, Mendia elektrizitatea.

Irura. Caballero aroztegia, Carpinteria Atari S.L., Nekazaritza Egimendi.

Leitza. Adur taberna, Arakindegia jatetxea, Ardotegia Lenitz, Biok jantziak, Dia supermerkatua, Erbiti farmazia, Etxetresnak S.L., Fisiotexea, Garziarena arraindegia, Gaztañaga taberna, Gaztelu iturgintza, Leitza garajea, M. Plaza Tuñon farmazia,

Perurena harategia, Sagasti jatetxea, S.D.C.R. Guratz mendi, Talotegia, Zortziko labetxea S.L.

Tolosa. Aguro reparacion de calzados, Amets taberna, Aralar Kirolak, Arsuaga bizikletak, Bacalao txiki jai, Berogas langile elkarteak S.A.L., Colors, ELA sindikatua, Elite kirolak, Elurra taberna, Enmarcaciones Tuduri, Euskalpizza, H. Cid S.L., Inmobiliaria Dravasa, loana

Arbillaga podologia zentroa, Irrintzi taberna, Iturralde harategia, Juan Bautista Barriola harategia, Klisk argazki bideoa, La Inmakulada, Laier,

Muebles Josherra, Na-Ish, Optika Arotz, Orue erretegia, Sagredo inprimategia, Saldias Migel aseguru artekaria, SAM S.A. de talleres de manipulacion de papel, Santa Lucia, Servigraf offset y digital S.L.L., Solozabal autoeskola, Tindu margoak S.L., Tolosaldea Igeriketa kirol taldea, Xirimiri. **Villabona.** Bar Argoien, Eizmendi armategia (kirolak), Inmobiliaria Irukide.

GUK ZERBITZUA EUSKARAZ

Aduna. Andreetegi, Sointek, Zabala sagardotegia.

Amezketza. Kutxa. **Anoeta.** Galdi Kooperatiba elkarteak.

Areso. Pake toki elkarteak. **Ibarra.** Kutxa.

Ikaztegieta. Eskola txikietao Guraso elkartearen koordinakundea.

Leitza. Amazabal B.H.I., Aresoko soka-tira taldea, Asketa abesbatza, Aurrera Kirol elkarteak, Eguzkitza okindegia S.L., Eldugar L.S., Erleta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak, Euskadiko Kutxa, Gorritz arkume eta gaztak, Gorritz S.L., Haur eskola, Kapritxo, Karrape irratia, Leitzaok euskaltegia,

jubilatuak elkarteak, Lizarraga harategia, Musunzar ostatua, Peritza taberna, Torre Gastronomía eta kultur elkarteak, Urkiola harategia, Zurlan zurgindegia S.L. **Tolosa.** Aixa, Bankoa-Credit Agricole, Bilitx megadenda, Ehneler, Eugenio Uranga harategia, Gipuzkoako EHNE, Gipuzkoako ur kontsoltzioa, Hirukide-Eskolapioak, Hirukide-Gainberri, Hirukide-Jesuitinak, Kimetz denda, Kutxa Gorosabel, Lardi-bi harategia, Lizarrabar oinetakoak, Meskal, Tolosaldeko Landa garapen elkarteak Tolomendi. **Villabona.** Labezain okindegia, Ogi-Goxo okindegia.

GUK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

Areso. Eskola, Guraso Elkarteak, Kultur Taldea. **Ibarra.** Tolosa Herria Hedabideak S.L., Uzturpe Ikastola.

Leitza. Amazabal guraso elkarteak, Denok bat guraso elkarteak, Kultur taldea, Maddalen Lazkano, Mendibil mendi taldea, Sahasar herriaren elkartzan taldea. **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldea, LAB sindikatua, Laskorain ikastola.



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2006.eko otsailaren 21.ean egin zuen ohiko bilkuran, hasierako onepene eman zion, erabakian bertan jasotzen diren zuzenketak eta baldintzekin, honako proiektu honi:

I.4 "Gorostidi-Voith", E.2 "Misenkordi Zaharra", E.2.6 "Arkaute", eta E.1 "Uzturpe kalea" eremuetako Arau Subsidiarioen Aldaketa.

Proiektua, hilabete bat (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, Hirigintzako Planeamendu Erregelamenduko 161.1. eta 126 artikuluek eta 1976ko Lurzoruz Legearen Testu Bataretuaren 49. eta 40. artikuluek xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berran, Diario Vascon eta Hitzen argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Udaleko Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, aipameneko epean, Alegazio edo erreklamazioak alkatari zuzendu behar zaizkio eta Udaleko Sarrean Erregistroan aurkeztu.

Tolosa, 2006.eko otsailaren 22an
ALKATEA



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak, bi mila eta seiko otsailaren 21.ean egindako Osoko Bilkuran, ondorengo oinarriak onartu zituen: Voith-Gorostidi eremuko toki-babeseko etxebizitzaren erregimen juridikoa arautzeko oinarriak eta eremu horretako babes ofizialeko etxeak adjudikatzeko oinarriak.

Dinamiz horiek jendaurrean jarriko dira hamabost (15) egunetz, interesdunek alegazioak, ekarpenak edo iradokizunak egiteko aukera izan dezaten.

Epe horretan, oinarriak ikusgai egongo dira plaza Zaharreko 6ko Udal Erregistroan eta Tolosako Udalen web orrian (www.tolosakoudala.net). Alegazioak, bestalde, Erregistro horretan bertan aurkeztu behar dira, alkaterehondakariari zuzenduta.

Baldintzei dagokien, bi etxebizitza motetan beharrezkoa izango da eskatzaileek Tolosa errodaduta egotea 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, edo udalerrian 15 urtez bizi izandakoak izatea.

Toki-babeseko etxebizitzetegi dagokien, eskatzaileek diru sarrean hauek egiaztatu beharko dituzte: gehienez 43.000 eurokoak eta gutxienez 12.000 eurokoak.

Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, eskatzaileak behar den bezala alta emanda egon beharko dute Babes Ofizialeko Eskatzaileen Erregistroan edo Etxebidien. Gainerako baldintzei dagokien, babes ofizialeko etxebizitzetegi buruzko legeari ezarritakoak aplikatu da.

Tolosa, 2006ko otsailaren 22a - ALKATEA - Jokin Bildarratz Sorron

KULTURA ▶

Blues doinuak eta umore saioa, gaur

Molestias klownicas eta Mr Hurricane Band ariko dira

NOELIA LATABURU

Askok eta askok egunotan izango duten Inauterietako aje-ari aurre egiteko kultur aukera paregabea izango da gaurkoan. Musika alde batetik eta antzerkia bestetik. Lehenengoa Mr. Hurricane Band taldearen eskutik dator; laukote hau Fronton kafetegian ariko da,

23:30etik aurrera. Armonika, gitarra, baxua eta bateriaren bitartez blues doinu originala osatzen dute Mr. Hurricane Band-eko partaideek. Bi disko dituzte eta musika munduan adituak dira. Bartzelonako La Boitte izeneko lokalean aritu dira makina bat aldiz eta hainbat eta hainbat jaialdi bisitatu dute.

Irakasle lanetan ere dihardute Pere Foved bateriak, Joan Pau Cumellas armonikajole eta abeslariak, Ramon Vague baxuak eta Andreu Martinez gitarrajole eta abeslariak.

Bestalde, Molestias klownicas taldearen *Parodia clown* izango da ikusgai Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Pauxa eta Endorfinia pailazoak dira bi



Mr Hurricane Band taldeko partaideak ariko dira gaur Frontonen. HITZA

protagonistak, eta umorezko saio baten bitartez estresaren, argaltzeko dieten, etxeko andreen, ginekologoari bisitaren eta automedikazioaren berri

ematen dute, beti ere ikusleen parte-hartzea bultzatuz. Proposamen berezia, emakumeen eta osasunaren arteko erlazioa hizpide hartuta.

GIZARTEA ▶

Harizpe elkarteak bidaiak antolatu ditu Iparraldera, Galiziara eta Lloretera

Martxoan, apirilean eta maiatzean burutuko dituzte, hurrenez hurren

ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak bidaia antolatu du Iparraldera datorren martxoaren 21erako. Txangoaren irteera goizeko bederatzietan izango da San Frantziskotik eta lehen geldialdia Biarritzen izango da. Bertatik Arrangoitze, Sara eta Senpereko lakua bisitatu ostean, Oiartzunera joango dira Aduriz Sagardotegian bazkaltzeko. Arratsaldean, Irun edo Hondarribia bisitatu dute Tolosara itzuli baino lehen. Bazkarirako aukeratu duten menua honakoa da:

sarrerakoak, legatz budina, bakkailo tortilla, txekor okela, budina, izozkia eta kafea. Edateko ardoa eta sagardoa izango dute, eta bidaiaren prezioa 28 eurokoa izango da bazkide ez direnentzat eta 25 eurokoa bazkideentzat. Txartelak salgai izan dira azken asteotan eta gaur amaituko da hauek lortzeko epea.

Honetaz gain, Harizpe elkarteak bidaia gehiago prestatu ditu hurrengo hilabetetarako. Maiatzaren 15etik 29ra Lloreten (Espainia) antolatu du egonaldia, Don Juan hotelera. Autobusa, egonaldia, pentsio

osoa, bidai-asegurua eta gidari laguntzailea sartzen da bidaiaren barnean, Bazkideek 319 euro ordaindu beharko dute eta bakide ez direnek, berriz, 325 euro.

Apirilean ere badute beste irteera, 23tik 29ra, Galiziara, hain zuzen ere. Rias Baixasen kokaturik dagoen Floridamar hotellean pasako dituzte sei gau, hondartzatik 200 metrora. Bazkideentzako 195 euro izango dira eta 201 bazkide ez direnentzat. Informazioa nahi izanez gero, Harizperen egoitzara jo daiteke (Emeterio Arrese) edo 943 65 49 15ra deitu.

XAKEA ▶

Tolosa-Ibarrakoen garaipena Gipuzkoakoan

Gorengoan Mailakoek Marlaxkakoak eta 3. Mailakoek Villabonakoak garaitu zituzten

ERREDAKZIOA

Aurreko larunbatean Gipuzkoako Ligako zazpiarren jardunaldia jokatu zen eta Liga hasi zenetik lehen aldiz Tolosa-Ibarrakoe bi taldeek irabazi egin zuten. Gorengoan Mailan elkarteko lehen taldeak Hondarribiako Marlaxka taldearen bisita jaso zuen. 2,5 eta 1,5eko markagailuarekin irabazi zuten etxekoak.

Hirugarren Mailan, berriz, elkarteko bigarren taldeak Villabonakoen aurka jokatu zuten. 2,5 - 1,5 irabazi zuten

hauek ere. Garaipen honi esker, gainera, hirugarren amaitu dute Ligako lehen fasea eta igoera faserako sailkatu dira merezimendu osoz.

Bestalde, etzi, igandearekin, Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketari ekingo diote eskualdekoek. Tolosako Berdura Plazan dagoen Xake Elkartearen bertan lehiatuko dute parte-hartzaileek; goizeko hamaitan eta alebin mailakoek urtarrietik aurrera jokatu eta gero, benjaminen txanda izango da orain.

hitza *lagunen*
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
 o s a g a i a k
 korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
 TOLOSA
 Tel.: 943 67 22 44

kanikak
 San Frantzisko, 21 • Tolosa
 Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
 Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
 Rondilla, 11
 TOLOSA
 Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
 Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
 Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
 OINETAKOAK
 Arostegieta kalean
 TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

VILLABONA ▶ KONTSUMOA

Telefonia eta Internet aztergai Gurea aretoko erakusketan

Igandera arte iraungo du eta mugikorren inguruko «mitoak eta errealtateak» jorratzen dituzte, besteak beste



Inaugurazioan, herenegun, besteak beste, Tejeria alkatea erakusketari buruzko informazioa jasotzen. HITZA

ERREDAKZIOA

Telefonia eta Internet. Eskueran duzun mundua erakusketa ikusgai dago Villabonako Gu-

rea aretoan igandera arte. Beste gai batzuen artean, «mugikorren inguruko mitoak eta errealtateak» jorratzen dira bertan.

Herenegun inauguratu zuten Bakartxo Tejeria alkateak erakusketa. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segur-tasuneko Zuzendaritzak abia-

razitako ekimena den Kontsumoari buruzko Erakusketa Ibil-tariaren baitan kokatzen da Gureako erakusketa. «Oro har, herritarrei kontsumoaren inguruko prestakuntza eta informazioa ematea du helburu, beren eskubideak eta betebeharrak jakinarazita», azaldu dute Eusko Jaurlaritzatik.

Telefonia finkoa, telefonia mugikorra eta Internet dira aztertutako gai nagusiak. Eta azpigi hauek jorratzen dira: telefoniako faktura irakurtzeko informazioa, telefono finkoaren zerbitzu gehigarriak, sakelako telefonoen edo mugikorren inguruko mitoak eta errealtateak, mugikorra hautatzeko azterketak eta etxerako Internet kontratatzeke egin beharreko urratsak.

Tarifen inguruan

Tarifazio osagarriko zenbakiei buruz (803, 806, 807...) oinarriko informazioa ere ematen da; «oro har, jendeak ez baitu horren berririk», diote erakusketaren antolatzaileek. Erabiltzaile gisa ditugun esku-bideak, aplikatzen diren hainbat tarifa eta abarri buruz informetzen da.

Erakusketak, esan bezala, igandera arte iraungo du eta 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Igandean ordutegi berezia izango du, 12:00etatik 14:00etara.

ANOETA ▶

Urkiak landatuko dituzte gaur, Zuhaitz Egunean

Zuhaitz Eguna egingo dute gaur Anoetan. Lehenengo hitzordua 15:00etan izango da. Ikastolako LH5ko eta 6ko ikasleek urkiak landatuko dituzte Errotaren inguruan. 19:00etan, berriz, Jakoba Errekondok hitzaldia eskainiko du udaletxean, landareei eta zuhaitzei buruz.

VILLABONA ▶

Herri Olinpiaden lehenengo saioa bihar Gaztetxean

Herri Olinpiadak antolatu dituzte Villabonan, orain urte batzuk egindakoak berpizteko asmoarekin. Bihar izango da lehenengo saioa eta Gaztetxean egingo dute. Bertso proba egin beharko dute izena ematen duten koadriletako partaideek. 15:30ean hasiko da ekitaldia, proba ezberdinekin. Ondoren, 19:00ak aldera, bertso-merienda egingo dute. 20:00etan Oreak TX eta, ondoren, oraindik konfirmatu gabeko beste musika emanada.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Gazteei zuzenduriko eski irteera

Villabonako eta Zizurkilgo Udalek antolaturik, 1980-1991 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduriko eski irteera egingo dute Luz Ardi-denera, hilaren 11n. 20 euro kostatuko da eta prezio horretan sartzen da autobusa, pistak erabiltzeko txartela eta eski edo snow materialaren alokairua. Zizurkilgo Aurrera plazako udal bulegoetan eman daiteke izena.

POLITIKA ▶

Igor Anguloren heriotza salatzeke ekitaldiak

Igor Angulo preso politikoa- ren heriotza salatzeke ekitaldiak antolatu dituzte gaur eskualdean. Alde batetik, Villabonan, 19:30etik aurrera manifestazioa abiatuko da herriko plazatik. Bestalde, LABek konzentrazioa deitu du. Tolosako Traingulo plaza, 12:00etan.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

75 emakume zizurkildar bilduko dira urtero antolatzen duten irteeran

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu

ERREDAKZIOA

Hilaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, Zizurkilgo Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunotarako. Tartean, ohikoa den egun-pasa egingo dute emakume zizurkildarrek. Bihar izango da irteera hori, Gaztelu-

gatxe eta Bermeora, eta 75 emakume joango dira. Autobus eta mikrobus bat beteko dute eta irteera hitzorduak, ondorengoak: 09:00etan, Zizurkil Goiko plazan, eta ordu laurden beranduago Joxe Arregi plazaren ondoko biribilgunean.

Hala ere, ekitaldiak atzo hasi ziren, Guraso Eskolako lehen



Esulan tailerrekoek iaz ere egin zuten erakusketara. HITZA

hitzaldiarekin, *Arauk eta mugak* izenekoa.

Datorren astea herriko eskulan taldeen erakusketaren inaugurazioarekin hasiko da. Astelehenean, beraz, 19:00etan hitzordua, Atxulondo kultur etxean.

Astearterako hitzaldi bat antolatu dute, Ana Errazkinen eskutik. Garapen pertsonalaren inguruan izango da eta *Mugak*

hautsi! da bere izenburua. Hitzordua, 19:00etan, Atxulondo Kultur Etxean.

Asteazkenean, Emakumearen Nazioarteko Egunean, patchwork ikastaroari hasiera emango diote. Asteazkenean izango dira saioak, 18:00etatik 20:00etara. Aurrera plazako udal bulegoan eman daiteke dagoeneko izena, eta prezioa 30 eurokoa da.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ALEGIA ▶

Albizuren lanak
Jubilatuena
tabernan

Alegiako jubilatuen tabernan erakusketa jarri dute. Hilaren 21a arte izanen dira ikusgai Amaroako Jose Luis Albizuren koadro bereziak. Erliebea ere lantzen duen margolari honen lanak bitxiak dira.

ALEGIA ▶

Odol-ematea gaur
izango da
Mediku Etxean

Gaur odol-ematea izango da Mediku Etxean. Odola eman nahi duen oro hara joan behar du, arratsaldeko zazpitan.

AMEZKETA ▶

Zazpi-Iturri, bihar
Berria
Txapelketan

Berria Txapelketan ariko da bihar Zazpi-Iturri pilota eskola: Gernikan izanen dira, 16:30etik aurrera.

ALEGIA ▶ BERTSOLARITZA

Lehen Bertso Paper
Lehiaketa hastear da

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak antolatu du lehiaketa

NEREA URBIZU

Alegiako I. Bertso Paper Lehiaketa antolatu du Zazpi Astoren gainean herriko bertso eskolak. Alegiako Udala, San Juan herri eskola eta Aralar institutua izan ditu laguntzaile ekimen honetan. Eta dagoeneko eman dute lehiaketa honen oinarrien berri.

Parte-hartzaileak adinaren arabera banatu dituzte, bi taldetan. A taldean 16 urte baino gutxiagoena izango da, eta B taldean 16 urte edo gehiago dituztenena. Talde honetan, gainera, bi azpitalde egingo dituzte saridunak aukeratzeko.

A taldekoak egun batean, martxoaren 31n, 16:30ean, elkartuko dira Kultur Etxean. Bertan, gai batzuk emango zaizkie parte-hartzaileei bertsoak edo koplak egiteko. Arratsalde osoa izango dute nahi duten bertso kopurua egiteko eta pentsatzeko.



Bertso eskolak bertso afaria antolatu zuen duela gutxi. HITZA

Guztiak batera egingo dute lan, baina bai gaiak jartzerakoan bai sariak ematerakoan, LHkoak (11 urte arte) eta DBHko-

ak (12tik 16ra) desberdinduko dituzte.

B taldekoak gutxienez 5 eta gehienez 10 bertso idatzi be-

harko dituzte. Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira, baina ezinbestekoa izango da doinuaren izena argi adieraztea. Baldintza horietan parte-hartzaile bakoitzak nahi adina bertso-sorta aurkez ditzake. Lanak aurkezteko epea hilaren 31 izanen da.

Bi gutun itxi entregatu beharko dira. Batean bertso lana sartuko da eta bestean egilearen izena eta datuak, telefono zenbakiaz gain. Egilearen izenordea bi gutunetan adierazi beharko da. Lana Kultur Etxean entregatu edo helbide elektronikoko honetara bidali behar da: zazpiastorengainean@euskaletxerria.org.

Maila bakoitzean lehendabiziko bi sailkatuak izango dira sarituak, epaimahaia beste sari bereziren bat erabaki ezetan. Sariak 200 euroko balioko oparietan emango dira.

Sari banaketa

Lehiaketako gaztetxoaren sariak eskolan bertan banatuko dituzte, apirilaren 7an, antolatuko duten ekitaldian, hain zuzen ere.

Txapelketan zaharrenek, —B taldekoak—, berriak, apirilaren 21ean egingo den herriko bertso afarian jasoko dituzte sariak.

UDA BERRI
UDAL BIDE
UDAL BILTZA !!!

EUSKAL HERRIKO UDAL HAUTETSIEEN 4. BILTZARRA

MARTXOAREN 4AN DURANGOKO LANDAKO GUNEAN
GONBIDATUA: JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARIA

UDAL BIDE
ELKARLAN ■ ELKARTEA

IBARRA ▶ HOCKEYA

Uzturpe eta Txuri-Urdin aurrez aurre

I. Terradillos ▶ Hockey saio bereziaz gozatzeko aukera izango da bihar Ibarrrako Belabieta kiroldegian. Batetik, Ibarra areto futbol taldearen eta Deportivo Alaves EHU Arabaren arteko norgehiagokaren aurretik, hau da, 16:30ean, senior mailakoen partida izango da ikusgai, Uzturpe eta Txuri-Urdin taldeen artekoa, hain zuzen. Partida horren aurretik, bestalde, gaztetxoak izango dira ikuskizuna eskainiko dutenak. Kasu horretan, Uzturpe taldeko txikiak izango dira bertaratzten diren zat erakustaldia egingo dutenak. HITZA



IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Deportivo Alaves-EHUren aurkakoa du bihar Ibarrrak etxean

18:30ean hasiko da partida Belabietan; zaleei deialdia egin die etxeko taldeak animoak eta berotasuna falta ez daitezen

izan. Jokalari dagokionez, Hautsi ezezik, beste guztiak jokatzeke prest izango dira bihar. Deportivo Alaves taldeak ere bajak tarteko hainbat jokalariren hutsunea izango du bihar-koan.

Jubenilak garaipenaren bila

Juan Pablo Zubelzu Txubel-ek entrenatzen dituen juvenilen taldeak etxean jokatu zuen pasa den asteko partida Gaztelueta talde bizkaitarraren aurka. 16-2ko emaitzarekin amaitu zen Ibarrrakoen alde. Aste honetakoari dagokionez, etzi jokatuko dute, 11:30ean, Bilboko San Inazio auzoan GSI Bilbo EHUREn aurka. Ibarrrak berriz ere garaipena baino ez dute izan behar buruan sailkapeneko lehenengo postua eskuratu nahi badute.

Mikel Sanzek zuzentzen duen taldea, hau da, Uzturpe-Ibarra kadeteek bihar 09:00etan jokatuko dute Donostian Mariaren Lagundiaren aurka. Txapelketako azken partida izango dute; guztia erabakita dago Ibarrrako taldearentzat, hainbat aste lehenago jakin bazekitelako lehenengo postua ziurtaturik zutela.

Zaleei deialdia

Ibarra areto futbol taldeak deialdi berezia egin die zaleei bihar Belabietan jokatuko duten partidaren Cesar Rocaren mutilek «animoak eta berotasuna ez ditzaten faltan botan». Izan ere, «garaipena merezi dute Ibarrrak egindako lanagatik, eta lortzeko beharrezkoa izango dute zaleak bertan izatean».

ERREDAKZIOA

Pasa den asteko partidaren Uzturpearen aurka berdinketa erdietsi eta gero bihar izango du hurrengo norgehiagoka Ibarra areto futbol taldeak. Kasu honetan, Deportivo Alaves-EHU Araba taldearen —iazko denboraldiko CD Atenea— aurkako partida izango du Ibarrrako Belabieta kiroldegian 18:30ean hasita. Partida ga-

rrantzitsua, izan ere, bai Ibarrrak, bai eta arabarrek ere sailkapeneko lehen postuetan egoteko gogor ari dira lanean.

Jose Manuel Tobias Romero Ibarrrakoen prentsa arduradunak azaldu bezala, partida zaila izango da biharkoa, aurkari oso gogorrak baitira. Gasteizko taldeak ez zuen denboraldi hasiera ona izan, baina jardunaldiek aurrera egin ahala gora egin du bigarren posturaino iritsi arte. Halaber, azken zortzi partidetan garaipena lortu du, eta liderrarengandik, hau da, Irurtzungo Xotarengandik puntu batera baino ez dago. Ibarrrakoengandik, berriz, bi puntura daude gasteiztarrek, beraz, bihar garaipena lortuz gero Ibarra jarriko litzateke aurretik. Era horretara, gol kopuruaren alde pertsonala Ibarrrakentzat izango litzateke, joaneko partidaren 4-5 hartu baitzuten mendean Deportivo Alaves.

Bestalde, Ibarrrak joku eraginkorrenekin jarraitzen du; izan ere, talde gasteiztarren antzera, ez du porrotik ikusi azken 7 partidetan, baina hori bai, ez dira guztiak garaipenak

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Aurtengo Inauterietako argazkiak, egunez egun, ikusteko aukera eskaintzen dizu eskualdeko egunkariaren webgunek. Sar zaitez *irudietan* atalean eta gozatu igaro berri diren festa zoroenak utzi dutena gogoratu!



iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Multivan-a salgai. Interesatuak deitu 670 06 55 33 telefono zenbakira.
Furgoneta. Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 kilometro. Oso egoera onean. Deitu 635 73 63 75 zenbakira.

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

TOLOSA ▶

Duela 30 urte hil zituzten langileak gogoan

ERREDAKZIOA

LABek deituta gaur 19:30ean konzentrazioa egingo dute Triangulon. Izan ere, gaur beteko dira 30 urte Gasteizko Frantzisko Deunaren elizan bilduta zeuden langileak «masakratuak» izan zirenetik; ondorioz, Romualdo Barroso, Francisco Aznar, Pedro Martinez, Jose Castillos eta Bienvenido Pereda hilak izan ziren, eta beste ehunka balaz zauriturik eta gaseatuta, «euren eskubideak defendatzen zituzten langileak izatea izan zelarik arrazoi bakarra». «Martxoaren 3a, beraz, Euskal Herriko langile mugimenduaren eta bere borrokaren erreferentzia eguna» dela azaldu du LABek, eta prekaritatearen aurkako erantzuna aktibatzen eta lan baldintza duinen alde gogor lan egiten jarraituko duela.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- ▶ Garraioak.
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

- ▶ Besterik.
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

Lasarteri leitzarrek

Bihar bertan 'Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza' erakusketa zabalduko dute; etzi omenaldia eskainiko diote bere sorterriko herrikideek

JAIONE ASTIBIA

Igandean Manuel Lasarteri omenaldia egingen diote bere herrikideek, berari buruzko erakusketa ireki berria izanen denaz balituz.

Lehenengo urriaz gerotik Euskal Herriko zenbait herritan erakusgai egon ondoren, bihar irekiko da *Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza* erakusketa Leitzan, eta aukera honetaz baliatuz, etzi omenaldi «xumea baina bihotzez egin» eskainiko diote, Orion bizi arren, Leitzako Franki baserrian jaio zen Manuel Lasarte bertsolariari.

Eguerdiko 12:00etan emanen diote hasiera ekitaldiari, Leitzako plazako Karrapean. Bertan herriko jendeak hartuko du parte: herriko lagunak eskainiko diete beren lana Lasarteri. Horrela, txalapartariak, dantzari eta txistulariak, bertsolariak, bertso eskolako ikasleak, abesbatzek, guztiek beren uztako zerbait eskainiko diote omenuari, eta egun hau gogoan izan dezan oroigarriak oparitutako dizkiote. Ondoren bazkaria egingen dute Landa ja-tetxean, Egaña eta Lizaso bertsolariekin.

Herritarrengandik

«Ekitaldian parte hartuko duten guztiak bertakoak dira. Herritarrok eskaintako zerbait izanen da», azaldu dute antolaketatik. «75ean, hain justu martxoaren 2an, tenore honetan, beraz, egin zioten omenaldi handia Manueli; herriko auzo bati ere bere izena jarri zioten orduan», gogora ekarri dute.

Hori horrela izanik, Kultur taldeak aitatutako erakusketa hori herrira ekarri behar zuela erabaki eta horretaz baliatuz, Manuel Lasarterekin, omenal-



Manuel Lasarte bertsolaria, martxoko ekitaldien sustraia. HITZA

dia-edo egun-pasa egiteko aukera) lantzen hasi ziren.

Idea hori buruan, herriko beste hainbat elkarteri eta erakunderi jakinarazi zien. «Guztien oniritziarekin eta parte-hartzearekin, Manueli egun hori eskaini nahi diogu herritarrok», azaldu dute. Horrela, «oraingoz» zehaztu dutenez, 9 elkarte eta erakundeek parte hartuko dute antolaketan.

«Adineko jendeak ezagun du Lasarte; bere lana eta bizitza, eta bertsogintza ere, baina gazteagoek ez. Orduan hori ezagutzeko bide bat da erakusketarena; eta bestea igandekoa: bera hemen izanen delarik, Leitzarekin berak mantendu duen lotura aintzat hartzeko eta bera ezagutzeko bidea emanez», azaldu dute. Jakina da Lasartek Plazola aldizkarirako bertsoak urte askoan bidali dituela, urte bukaeretan herritarrek zoriontzen dituela irratiz, eta maila pertsonalean ere harreman estua mantentzen duela hainbat lagunekin. Bada «igandekoa hemengo jendearekin egonen den egun polit bat izatea nahi dugu, berari ahalik eta trabarik gutxien eginez, oroitzapen polit bat

izan dezagula denok, bai bertaratuko direnek, eta batez ere berak: apal baina gertuko».

Kontuak kontu ordurako, larunbatean irekia izanen da arestian aitatutako erakusketa hori ere. Jakitera eman dutenez, hiru aste oso egingen ditu Leitzan zabalik, bihartzik hasi eta hilaren 26a bitarte. Astegunez, larunbatak barne, arratsaldez irekiko dute, 18:00etatik 20:00etara; igandetan, berriaz, eguerdiarte, 12:00etatik 14:00etara.

Erakusketa hau Iñaki Hernandezek, Iñaki Zubizarretak eta Julian Belokik prestatu dute, Lasarteren hiru lagun min, baina «batez ere bere bertsogintzaren jarraitzaile etsuak» direnak.

Apaltasunez

Bertsogintzan, zein bertsokera txukuna, zein hizkuntza zuzena, nolako erritma zehatzak, zein serioa itxuraz baina nolako umore fina, hiztun ona... Hori guztia jaso eta erakusteko ardura hartu zuten hiru lagun hauek, hain apala izan den Lasarteri ezagutza eginez.

Horrela, erakusketan bere

EGITARAUA ▶

ERAKUSKETA:
'MANUEL LASARTE:
BIZITZA ETA SORKUNTZA'
Egunak. Hilaren 4tik 26ra bitartean.

Lekua. Leitzako udaletxeko batzar aretoa, 2. solairuan.

Ordutegia.

▶ Astegunez: 18:00etatik 20:00etara.
▶ Igandetan: 12:00etatik 14:00etara.

LASARTERI OMENALDIA

Eguna. Etzi, igandea.

12:00etan. Karrapen

ekitaldia

14:00. Herri bazkaria,

Egaña eta Lizaso

bertsolariekin.

HITZALDIA

Noiz. Hilaren 17an.

Ordua. 19:00etan.

Non. Leitzako udaletxeko batzar aretoan.

Gaia. Manuel Lasarteren uztia.

Hizlariak. Julian Beloki, Iñaki Zubizarreta eta Iñaki Hernandez.

lan hori eta bere bertso-lagunekin izan duen harremana eman dute ezagutzera; berak egindako 8 liburua ikusgai jarri dituzte; bertsoak entzungai daude. Bere bertsogintza da ardatz nagusi, baina ez bakarria. Bere bizitzaren eta langintzaren aitamenduak ere ageri baitira bertan, hala nola berak egindako tresnak erakusgai jarri baitaude.

Erakusketaren barruan, hilaren 17an hitzaldi-mahai inguru bat ere izanen da, 19:00etan, aretoan, Lasarteren bertsogintzaren inguruan, besteak beste bere ezagutza dutenen testigantza zuzenekoekin.

LEITZA ▶

Oliver Twist mutikoaren abenturak, euskaraz

Asteburu honetako zinema saioetan, ohikoez gain, beste bat umeentzat



Oliver Twist mutikoa. HITZA

J. ASTIBIA

Euskaraz eskainio dituzte asteburu honetako zinema saio guztiak: *Oliver Twist* filma izanen dute ikusgai helduek nahiz gaztetxoek. Ostiralean 22:30eko eta igandean 19:30eko ohiko saioak eskainiko dituzte. Baina oraingoa, gainera, ume eta gazte-txontzat bereziki bideratuta, beste saio bat gehiago emanen dute igandean beren, 16:30ean hasita eta 3 euroan. Denok bat guraso elkartearen eskutik.

El pianista filma sarituaren egileak, Roman Polanskik, egindakoa da lan hau. Charles Dickens ipuina du oinarri: Oliver umezurtzegi batean bizi da, gaizki, gosez eta arretarik jaso gabe. Bere usteko arduradunei aurre egiten die eta hauek ikastun modura hartu nahi lukeen edonori eskaintzen dute. Gertaeren joanak, Londone-ramaten dute eta Fagin gaiztoaren aginduetara jardunez, karterista talde baten murgilduta aurkitzen da.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 3a, ostirala ▶ IV. urtea

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Tolosa. *Molestias klownicas.* 20:00etan, Kultur Etxean. Oihulari Klown taldearekin.

DEIALDIAK

Alegia. Odol-ematea. 19:00etan, mediku etxean.
Anoeta. Zuhaitz Eguna. 15:00etan, Ikastolako LH5eko eta 6ko ikasleek urkiak landatuko dituzte, Errota inguruan. 19:00etan, Jakoba Errekondoren hitzaldia landare eta zuhaitzei buruz, udaletxean.

Tolosa. Eresoinka abesbatza aritutako kantarietako bazkaria antolatuko dute hilaren 12an, larunbata. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan. 37 euro sartu behar dira 2101 0117 12 0125329102 kontu korrontean (Kutxa).

Tolosa. Igor Anguloren heriotza salatzeako kontzentrazioa, LABek deituta. 12:00etan, Trianguloan.

Villabona. Igor Anguloren heriotza salatzeako manifestazioa. 19:30ean, plazatik abiatuta.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Dorleta Ortiz de Elgearen pintura erakusketa. Gaurtik apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

MUSIKA

Tolosa. Mr Hurricane Band. 23:30ean, Fronton .

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz zuzua, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitzaren errepaso, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kilometroak eta HITZA, eskutik

TOLOSALDEA ▶ Lehen aldiz sinatu dute hitzarmena Gipuzkoako ikastolek eta egunkariak, elkarlanean aritzeko



Arrate Arozena *Oarsoaldeko Hitza*-ko kudeatzailea eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko Kilometroetako koordinatzaile Igor Elortza. OARSOALDEKO HITZA

GOIATZ LABANDIBAR / OARSOALDEKO HITZA

Lehen aldiz, Kilometroen antolakuntzak eta HITZA egunkariak elkarlanean hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen honen bitartez, Haurtzaro Ikastolaren Kilometroak 2006k Gipuzkoa osoko HITZA egunkarietan izango du oihartzuna.

Aurtengo Kilometroak Oiarztunen izango direnez, Gipuzkoako ikastolen artean Haurtzaro Ikastolari egokitu zaio sinatzea, eta *Oarsoaldeko Hitza*-ri, gainontzeko eskualdeetako egunkarien izenean.

Haurtzaro Ikastolan sinatu dute Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko Kilometroetako koordinatzaile Igor Elortzak eta *Oarsoaldeko Hitza*-ko kudeatzaile Arrate Arozenak.

Hitzarmena heldu bada, besteak beste, egunkariak eta ikastolek helburu berdinekin batzuk bat dituztelako izan da. Izan ere, euskararen normalizaziorako ezinbestekoak dira bai ikastolen mugimendua zein euskarazko prentsa ere; bi eragileak ari dira horretan.

Kilometroen jaia duela urte batzuk hasi zen beste komuni-

kabide batzuekin hitzarmenak egiten, baina HITZA egunkariaren presentzia eta garrantzia handituz joan den heinean, hitzarmen hau egitea ere beharrezkoa bihurtu da. Bi aldeak pozik daude lortutako adostasunarekin, eta asmoa hemendik aurrerako Kilometroetan ere tankerako hitzarmena lortzea da, eskualde jakin horretan HITZARIK izanez gero.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Amaia Otamendi (Abaltzisketa). 7 muzu goxo ebeko parranderari. Ebeko guztiek.



URTE ASKOAN
Ugaitz Goikoetxea Altuna. Gaur urtebele. Zorionak eta muzu bat aitaio eta amaboren partetik.



URTE ASKOAN
Begoña Lasa Uzkudun. Zorionak atzoko partez, zenbat erori dira? Animo, neska. Ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Naiara Severino Davila. Atzo 6 urte. Zorionak eta muzu handi bat ama eta Maialenen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea